



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/08/19



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/08/21

2025EKO EKAINAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko Ekainaren 25ean, arratsaldeko 18:30tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Mikaela Elizalde, M^a Mar Ansorena eta Iker Isiegas.

BERTARATU EZ DIRENAK : Javier Auza eta Alaia Etayo.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Maiatzaren 28ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

-2025/ 59 alkate ebazpena Olako 8. Poligonoko 196. Lursailean dagoen etxebizitzaren bigarren solairua eraberritzeko obra baimena onartuz aurrekontua 48.210,24 eurokoa da.

-2025/60 alkate ebazpena onartuz, Santiago Espinal Tellecheari, aparkatzeko elbarriendako txartela.

- 2025/61 alkate ebazpena onartuz Onartzea Juan Biurrarena Barrenetxeak aurkeztutako eskaera, Poligonoko 103. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, eta hortaz 260 euroko laguntza onartu.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/06/19

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/06/21

-2025/62 alkate ebazpena onartuz Imanol Biurrarena Barrenetxeak aurkeztutako eskaera, Poligonoko 8. lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, eta 270 euroko laguntza onartu.

-2025/63 alkate ebazpena onartuz Edurne Arrazubi Labianok aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2025eko Basaburuko herrien arteko mus txapelketarako sariak erosteko, eta hortaz eskatu bezala 400 euroko laguntza onartzea.

-2025/64 alkate ebazpena onartuz Begoña Arano Galarzak aurkeztutako 2025eko ekainaren 26tik 2025eko abenduaren 26ra borondatezko eszedentzia eskaera, Langileen Estatutuaren 46.2 artikuluaaren arabera.

-2025/65 alkate ebazpena ez onartuz Sara Quesada Diazek aurkeztutako eskaera Errekaondo kaleko 2 behe helbideko etxean dagoen belardian hiru zuhaitz botatzeko, ez delako udaleko eskumenekoa baimen hori ematea mantentze lanen artean sartzen direlako iharduera horiek.

-2025/66 alkate ebazpena onartuz Francisco Javier Azpiroz Latasak aurkeztutako eskaera, Itsasoko 4. poligonoko 431 lursaileko A, B, D eta E azpilursailen baso-erabilera ureztatzeko erabilerara aldatzea, eta, beraz, aldaketa hori onartzea eta Itsasoko 4. poligonoko 431 lursaileko A, B, C eta D azpilursailen.

-2025/66 alkate ebazpena onartuz Udabeko 1. Poligonoko 28. lursailean 12 oilo edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Gregorio Loidi Goñi jarduera kaltegarerako lizentzia ematea.

- 2025/67 alkate ebazpena onartuz Gartzarongo 6 poligonoko 228 eta 227A lursailetan 20 ardi edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Oihana Peñagarikano Mujikari jarduera kaltegarerako lizentzia ematea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Atetz eta Imotzeko udalekin sinatzeko hitzarmena, zerbitzu anitzetako langileen ordezkariak.

Alkateak azaltzen du Basaburua, Atetz eta Imotzeko udaletako zerbitzu anitzetako alkate eta langileekin bilera bat egin ondoren, erabaki zela guztien artean bajak eta lan bereziak beti ere langileen adostasunarekin kudeatuko zituztela aipatutako udalen artean, langileen ordutegiaren barruan. Mediki baja laburrak edo oporretako aldi horietan, udalek ezinbesteko lanak egitea baino ez dute eskatuko, hala nola kloroa begiratzeko... Era berean, unean uneko lanak egiteko lankidetzari atea irekitzen zaio, lan horiek egiteko pertsonen laguntza behar badute...





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/06/19



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/06/21

Langileak ez dira udal bakoitzetik bereizten, haien plantilla organikoan geratzen dira.

Bildutakoek ados daude hitzarmenean finkatutako xedeekin eta hortaz aho batez onartzen dute dokumentua eta Basaburuko alkatea den Santos Etxegia ahaldundu hitzarmen hori sinatzea.

4.- 2025eko aurrekontua. Behin betiko onespena.

Aurrekontua hasiera batez onartu zen apirilaren 28ko batzarrean eta 1995/2 Toki Ogasun Foru Legearen 202. Artikulua jarraituz erabaki hau maiatzaren 19ko NAN argitaratu zen eta jendeurreko epean gon da eksinaren 9a arte. Epe horretan ez dira alegazioak aurkeztu, hortaz aipatutako artikulua ikusita behin betiko onespena eman ahal zaio aurrekontuari.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, 2025eko aurrekontua behin betikoz onartzea, onartutako gastuak 1.589.091 eurokoak izanik

Erabaki hau NAO on argitaratua izan dadin agindu aurrekontua modu xehetuan argitaratuz.

5.- 2025eko plantilla organikoa. Hasierako onespena.

Alkateak aipatzen du aurrekontuarekin batera onartzen dela ere urteko plantilla organikoa.

Hau litzateke 2025. urterako plantilla

2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA

ZENBAKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK	HIZKUNTZA PROFILA	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Egonkortze prozesua	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Jardunean
03	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., 31,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean





SINATZAILEA

Basaburuko alkathea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/08/19



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/08/21

04	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., %10,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa	%23,38 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposizio lehiaketa, egonkortze prozesua	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean

IZENEN ZERREDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	GRADU A	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%100

LAN KONTRATUDUN FINKOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardunean	%100
M ^a Paz Etxarri Etxegia	Haur eskolako garbiketa	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34
Begoña Arano Galarza	Garbiketa	E	2024/12/26	%15 ,31,38.	Jardunean	%60,50
Aitor Arangoa Mariezkurrena	Garbiketa	E	2025/01/02	%15 %10,76	Jardunean	%60,50
Oier Legarra Beunza	Zerbitzu anitzetako	D	2024/12/26	%12, %42	Jardunean	%100





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/08/19

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/08/21

	langilea					
--	----------	--	--	--	--	--

LAN KONTRATATUDUN MUGAGABEAK

Aintzane Andueza Zabaló	Haur Eskolako hezitzailea	C	2021/08/23	%12, %18,52	Jardunean	%100
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12, %3,28	Eszedentzian	%100

Bertan agertzen dira plantillako lanpostuak alde batetik, hots administraria, zerbitzu anitzetako langilea 2 garbitzaile, eta haur eskolako 4 langile, zuzendaria eta bi hezitzaile eta garbitzailea.

Ondoren langileen izenen zerrenda agertzen da bereiztuz, funtzionarioak direnak, administraria soilik, laboral finakoak direnak eta mugagabeak direnak eta bakoitzaren egoera, jardunean edo eszedentzian.

1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako 325. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute hasierako onespina ematea 2025. Urteko plantilla organikoari eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 15 eguneko epean espedientea jende aurrean egon dadin alegazioak jartzeko.

6.- Alkatearen lanaldia luzatzea

Alkateak azaltzen du lanaldia luzatzeko eskaera egiten diola batzarrari, egun duen jardunaldiarekin ez da guztira iristen, PSTD programako bilera asko asteazkenetan izaten dira eta ezin joanez ibiltzen dela. Horregatik egun duen lanaldia %40tik %50era luzatzea da proposamena. Lanaldia %50era igotzeak suposatzen du soldata gordina 1798 urokoa izatea eta honen gizarte segurantz 597 euro, hots hilabetean 2392 euroko gastua izango litzateke.

Bildutakoek gaia eztabaidatu ondoren onartzen dute alkatea den Santos Etxegia Oronozen lanaldia %50era igotzea ea hortaz honek suposatzen duen hilabeteko gastua 2392 eurokoa gastua ere onartu.

Erabaki hau Bidera aholkularitzari jakinarazi uztailaren 1etik aurrera eragina izan dezan.

7.- Mozioak



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/06/19

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/06/21

EH Bilduk bidalitako bi mozio daudela adierazten du alkateak, lehena Kubaren egoeraren ingurukoa eta bestea ekainaren 28an ospatzen den LGBTBIQ+ aldarrikapen egunaren ingurukoa.

Lehenik Kubaren egoeraren inguruko mozioa irakurtzen da, ondoren transkribatzen den mozioa:

“Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak Kuba "terrorismoa babesten duen estatutzat" jotzea zinikoa eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa argia da. Izendapen hori 2015ean kendu zuen Obama administrazioak, ebaluazio sakon bat egin ostean; alabaina, Trumpek bere aurreko legegintzaldiko aginteko azken egunetan berriro ezarri zuen, Kubaren aurkako gerra ekonomikoaren azken ekintza gisa.

Izendapena ankerra da, Kubako herriari ahalik eta sufrimendu handiena eragiteko diseinatuta baitago: bere ekonomia ito egiten du, familiak lekualdatzera behartzen ditu eta laguntza humanitarioaren fluxua ere murrizten du. Nazio Batuetako adituen arabera, izendapen horrek "oinarrizko giza eskubideak ahuldu ditu, hala nola elikadura eskubidea, osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, eskubide ekonomiko eta sozialak, bizitzeko eskubidea eta garapenerako eskubidea".

Izendapena ilegala da, "estatuen berdintasun subiranoaren printzipioa, estatuen barne kontuetan esku hartzea debekatzea eta gatazka nazioartekoak modu baketsuan konpontzeko printzipioa" urratzen baititu NBEko aditu juridikoen arabera. Izendapenak eragindako muturreko eta lurraldez kanpoko zigorrak, beraz, nazioarteko zuzenbidearen urraketa argia dira.

2024ko maiatzean, AEBetako Estatu Departamentuak, azkenean, Kuba "terrorismoaren aurkako borrokan AEBekin guztiz ez kolaboratzeagatik" zigortzen zuen zerrendatik kendu zuen. Baina hori ez da nahikoa. Kuba oraindik pairatzen ari da ekonomiaren esparru internazionalan bere bazterketa ziniko, anker eta ilegalaren ondorioak.

2025eko urtarrilean, egun gutxiren diferentziarekin, Biden administrazioak Kuba "terrorismoa babesten duten estatuen" zerrendatik kendu zuen, eta nazioarteko komunitateak pozik hartu zuen erabakia. Hala ere, ondoren Trump administrazioak berriz ere "terrorismoa babesten duen estatu" gisa izendatu zuen Kuba, eta horrek berriz ere ondorio larriak eragin ditu Karibeko herrialdearentzat.

ERABAKI-PROPOSAMENA

1. Basaburuko udalak Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari eskatzen dio Kuba terrorismoa babesten duten estatuen zerrendatik kentzeko.
2. Basaburuko udalak Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen dio neurri irmoak eta berehalakoak har ditzala Kuba zerrenda horretatik kentzea sustatzeko. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/06/19



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/06/21

Ondoren bigarren mozioa irakurtzen da, ondoren transkribatutakoa:

“Maiatzaren 17an, LGBT+fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGBT+ harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitzeez, harro gure bizi historiaz, harro LGBT+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBT+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa da dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa da dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara gobernatzen ari garen hainbat udaletan, eta hori sustatuko dugu ere oposizioan gauden toki guztietan.

Horregatik guztiagatik Basaburuko udalak udalak konpromezua hartzen du, gure herriko/herrialdeko LGBT+ pertsonen bizitzan gainera diagnostikoa egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integral bat abiatzeko. Prozesu hau, herriko LGBT+ mugimenduko kideekin batera egingo da egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze modua sustatuko da dugu.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBT+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora ekainaren 28a! “

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai zerrendatik kanpo udal planaren behin betiko onespeneren gaia dagoela adierazten die alkateak bildutakoei, Jose Ignacio Arribas arkitektoak prestatu du hilabeteak atzera eskatutako dokumentua, Basaburuan zehar egin diren bileren ondorioz aldaketak sartuz.

Orveko udal arkitektoak ere dokumentu horren txostena egin du, baieztatu txostena eta hortaz Nafar Gobernura bidali ahal da behin behineko onespenerako erabakia eta dokumentua haiek aztertu eta behin betikoz onar dezaten.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/06/19

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/06/21

Hortaz lehenik bildutakoek aho batez onartzen dute aipatutako gaia aztertzeko ekaineko batzarreko gai zerrendan txertatzea.

Basaburuko Udal planaren berrikuspena. Behin behineko onespena.

Alkateak aipatzen du Jose Ignacio Arribasek aurkeztu duela behin behineko dokumentua. Hasierako dokumentua hainbat bileretan aztertu zen eta bizilagunen alegazio eta udaleko ekarpenekin moldaketak txertatu zaizkio. Udal arkitektoak aztertu du eta ondorioztatu du sartua dagoela hitz egindakoa eta araudira egokitzen dela, hortaz bildutakoak aho batez onartzen dute behin behineko onespena ematea Basaburuko udal planaren berrikuspenaren dokumentuari eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71.11 artikuluaaren arabera dokumentua Nafar Gobernura bidaltzea agintzea haiek behin betiko onespena eman dezaioten.

8. - Batzordeen informazioa.

Euskara eta Kultura Batzordeak. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Maiatzaren bukaeran Nafarroako Bertsolari Txapelketarako sailkapen prozesuaren emanaldi bat burutu zen Apeztegi berrin, emanaldia arrakastatsua izan zen, 50 pertsona ingurua bildu ziren.

Uztailaren 19an Gari kantariak kontzertua eskainiko du Txokolatero etxeko atzealdean.

Abuztuaren 18an eta 19an pertseiden ikuskapena egingo da. 18an formakuntza tailerra burutuko da Iruñeko Planetarioko tekniko batekin Beramendin eta 19an kontzejuetan egingo dira ikuskapenak eta horretarako parte hartu nahi duten kontzejuei eskatuko zaie kanpoko argiak itzaltzea egun horretan.

Euskara teknikariarekin bilera egingo du Euskara Batzordeko Zinegotziak ikusteko nola txertatu euskara udaletik burutzen diren kirol ekimenetan.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ekainaren 14an eguneko egoitzaren ate irekien jardunaldia burutu zen. Bertaratu zirenak asko izan ziren eta jendea pozik gelditu zen emaitzarekin eta baita ere adinduen argazkien erakusketarekin.

Aurreko astean Lekunberriko eguneko egoitzara bisita egin zuen alkatearekin, haien funtzionamenduren inguruan ikasteko.

9.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

-10.000 euroko laguntza onartu dute langabetuen kontrataziorako 3 pertsona 4 hilabetez kontratatu dira.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/08/19



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/08/21

- Berdintasun Teknikariak maiatzaren 29an formakuntza saio bat burutu zuen kontzejuetako alkateekin eta udal ordezkariekin indarkeria sexisten inguruan ze pauso eman eta beste gai jorratu ziren, horien artean kontzejuetan erreferentziazko pertsona bat izendatzea ikusi zen garrantzitsua indarkeria kasuren bat gertatzen denean zer egin dakiena.

-Aizarotzko kontzejua eratu zen eta horren inguruan hainbat telebista saioetan agertu da gaia.

- Jon Alsua Beramendiko iharduera ekonomikoen gunetik ura hartzeko eskaera egin eta onartu zaio, kontutan hartuta aipatutako gunea egiteko 180 m2 inguru desjabetu zaizkiola eta borondatezkoa izan dela desjabetze hori inongo ordainketarik egin gabe.

- Kontzejuetako alkateekin bilera egin zen Iruñerriko Zaborren Mankomunitateko ordezkari batek irailetik aurrera jarriko diren kontenedore berrien inguruan.

- Hirigintza batzordean Aizarotzko kontzejuarekin batera erabaki zen Aizarotzko errota etxera doan ur kanala betetzea, etxeak dituen filtrazio arazori erantzuna eman ahal izateko. Obra hori egiteko arkitekto bati eskatuko zaio proiektu teknikoa egitea.

- Ekainaren 30eko datarekin aldatuko dira Aizarotzko udaleko eraikinen hornidurak eta aseguruak. Administrazio lanak udaletik egitea erabaki dute beste kontzeju gehienek bezala. Aizarotzko estatutako errentariak kontratua mozteko eskaera egin eta sinatu du, orain kontzejuak erabakiko du nola kudeatu eraikina.

- Iruña eta Donostia lotuko duen garraioa esleitu behar du Nafar Gobernuak. Prozesu horren baitan Basaburua eta beste udal batzuk alegazioak edo ekarpenak prestatu behar dituzte horien artean "lanzadera" moduko zerbitzua izatea bizilagunak Irurtzuna eramateko bertatik Iruña edo Donostiara joan ahal izateko.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:45 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

